


% 2,8ko urteko tasara igo da BPG Euskal AEn 2018ko bigarren hiruhilekoan

Enpleguaren eboluzio positiboa % 2,1eko hazkundearekin mantentzen da

EAEko Barne Produktu Gordinak (BPG) % 2,8ko urte-arteko hazkundera igo du 2018ko bigarren hiruhilekoan, urtaroaren eta egutegiaren arabera ondorioak erauzi eta gero, EUSTATEk landutako aurrerapen-datuek adierazi bezala. Hazkunde hori hiru hamarren txikiagoa da 2018ko lehen hiruhilekoan izandakoaren aldean.

Aurreko hiruhilekoari dagokionez, hiruhileko-arteko bariazio-tasa % 0,6koa izan da, aurreko hiruhilekoan izandakoaren aldean txikiagoa baita ere, bi hamarrenetan.

Euskal AEko BPGren aldakuntza-tasak. (%)
Urtaroen eta jaiegunen eraginetatik zuzendua



Iturria: Eustat. Hiruhileroko kontuak. Aurrerapena

Eskaintzaren ikuspegitik, 2018ko bigarren hiruhilekoan izandako urte-arteko eta hiruhileko-arteko hazkundera sektore guztien (primarioa izan ezik) agregazio-portaera onak eragindakoa izan da, nahiz eta tasak zerbait jaitsi aurreko hiruhilekoaren aldean, industrian eta baita zerbitzu guztietan ere.

Enplegua, lanaldi osoko lanpostu gisa neurtuta, % 2,1 igo da aurreko urteko hiruhileko beraren aldean, aurreko hiruhilekoarekiko hamarren bat gutxiago. Hiruhilekoen arteko hazkundera % 0,6koa izan da.

Informazio gehiago.

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62